



Autonomoen, profesionalen en enpresa txiki eta ertainen **finantza-eragiketarako dirulaguntza eta laguntza-lerroei buruzko informazioa**

Aurkibidea

Klik egin zure intereseko laguntzaren gainean:

- ▶ Eusko Jaurlaritzaren finantzaketa-bitartekoa (zirkulatzailaren finantzaketa)
- ▶ Eusko Jaurlaritzaren Gauzatu-Industria programa (aktibo finkoen finantzaketa)
- ▶ Eusko Jaurlaritzaren Gauzatu-Turismo programa (aktibo finkoen finantzaketa)
- ▶ Eusko Jaurlaritzaren Gauzatu-kanpoko ezarpenak programa (kanpoan egindako inbertsioen finantzaketa)
- ▶ AFI Programa (Spri, S.A.-ren laguntza, inbertsioen finantzaketa-kostuak murrizteko)
- ▶ Eusko Jaurlaritzaren Adefin programa (finantza-egitura moldatzeko laguntza)
- ▶ Eusko Jaurlaritzaren Bideratu programa (krisialdiak jota dauden enpresak berregitaratu eta bultzatzea)
- ▶ Autonomoentzako finantza-egokitzapen programa (Spri, S.A.-ren laguntza, finantza-eragiketak berritzeko)
- ▶ Euskal Herriko arrisku-kapitalaren kudeaketa AKEKS, S.A. (aldi baterako partaidetzak kapitalean)

► Eusko Jaurlaritzaren finantzaketa-bitartekoa (zirkulatzailaren finantzaketa)

Onuradunak	<p>Enpresa Txiki edo Ertainak (ezin dira krisi egoeran egon. Europako Batzordearen 2004/C 244/02 Komunikazioa- Europar Batasunaren Egunkari Ofiziala, 2004ko urriaren 1ekoa), egoitza Euskal Autonomia Erkidegoan duten Banako Enpresariak eta Profesional Autonomoak.</p> <p>Kanpoan utzi diren ekonomia-jarduerak: higiezin ingurukoak eta finantza-erakundeak ere enpresa txiki eta ertaintzat. Halaber, kanpoan utzi dira Erakunde eta Sozietate Publikoak eta irabazi-asmorik gabeko jardueretan diharduten sozietateak.</p>
Finantzaketa modalitatea	<p>ELKARGI S.G.R. eta OINARRI S.G.R. elkarren bermerako sozietateek bermatutako Mailegu eta Kreditu Eragiketak.</p> <p>Finantzaketa proiektuak finantzatzeko modukotzat joko dira baldin eta eskatzaileak aurkeztu duen finantza egitura etorkizunean garatzeko ezegokia bada edo, betiere, horren maniobra funtsa pasibo osoaren % 10etik beherakoa bada edo horren kapital zirkulatzailaren aldaketa negatiboa bada.</p>
Finantzaketaren xedea	<p>Zirkulatzaille gisa dituzten beharriaz erantzutea, KPOko 4 eta 5 Taldeetako kontu-sailak gogoan hartuz (hartzekodun komertzialak eta epe laburreko zorrak) finantzaketaren zenbatekoa kalkulatzeko.</p> <p>Zenbateko konputagarriak: “merkataritzako efektuen”, “kreditu kontuen” eta “merkataritzako hartzekodunen” deskontu eragiketetan, eskabidea aurkeztu baino 12 hilabete lehenagoko batez besteko saldoa. “Kreditu erakundeekin dauden zorretarako”, eskabidea aurkeztu osteko 2 urteetan amortizaziorako utzi diren kopuruen batura.</p>
Eragiketen ezaugarriak	<ul style="list-style-type: none"> • Bermatutako onuradun bakoitzarentzako gehieneko kopurua: 600.000 euro enpresa txiki eta ertaintzat eta 200.000 euro banako enpresari edo autonomoentzat. • Bermatutako eragiketa bakoitzerako gutxieneko zenbatekoa: 50.000 euro enpresa txiki eta ertaintzat eta 10.000 euro banako enpresari edo autonomoentzat. • Interes tasa: euriborra + %0,6, eta hori hiru hilean behin aztertu be-har da. • Komisorik eta gasturik gabe. • Abalaren ziozko komisia: %0,15 azterketagatik eta %0,5 abalagatik. • Amortizazio epea: 1-3 urte, urtebeteko gehieneko gabealdiaz.
Eskabideak	<ul style="list-style-type: none"> • Bulego hauean: • ELKARGI, S.G.R. <ul style="list-style-type: none"> • ARABA Tel: 945 23 12 12 • BIZKAIA Tel: 944 23 82 28 • GIPUZKOA Tel: 943 30 91 77 • OINARRI, S.G.R. <ul style="list-style-type: none"> • ARABA Tel: 945 29 82 80 • BIZKAIA Tel: 944 23 84 55

▶ Eusko Jaurlaritzaren Gauzatu-Industria programa (aktibo finkoen finantzaketa)

Onuradunak	<p>“Oinarri teknologikoa” edota “berritzailea” duten enpresa txiki eta ertainak, produktu-prozesuarekin zerikusia duten erauzketa, eraldaketa, produkzioa eta zerbitzu teknikoen alorreko —edo horiexei lotutako— industria-jarduerak garatzen dituztenak, bai eta komunikazioen eta informazioaren gizartearen esparrukoak ere.</p> <p>Euskal Autonomia Erkidegoan kokaturiko industria taldeetako enpresa nagusiak (%100eko partaidetza), baldin eta aurreko guztia bete eta enpresa txiki eta ertainen neurriari buruzko baldintzak gainditzen ez badituzte.</p> <p>Ezin dira laguntza hauen onuradun izan Erakunde Administrazioa eta Zientzia eta Teknologiaren Euskal Sareko Teknologia Ikerketarako erakundeak.</p>
Laguntza modalitatea	Euskal Autonomia Erkidegoan egin beharreko inbertsioekiko proportzionalak diren itzuli beharreko aurrerakinak.
Laguntzaren xedea	<p>Kategoria hauei dagozkien aktibo finko berriak finantzatzeko laguntza, KPOean ezarritako definizioaren arabera:</p> <ul style="list-style-type: none"> • 203 Jabetza industrialia eta patenteak. • 206 Informatika-aplikazioak. • 210 Lurrak eta ondasun naturalak. • 211 Eraikuntzak (berriak zein erabiliak). • 212 Instalazio teknikoak. • 213 Makineria. • 214 Tresneria. • 215 Beste instalazio batzuk. • 217 Informazio-prozesuetarako ekipoa. <p>“Lur eta ondasun naturaletan” eta “eraikuntzetan” egindako inbertsioaren gehieneko kopurua laguntza jaso dezaketen gainerako aktibo baturaren berdina izango da.</p>
Laguntzaren ezaugarriak	<ul style="list-style-type: none"> • Inbertsioa gauzatzeko aldia: 36 hilabete • Gutxieneko inbertsioa: 120.000 euro. • Gutxieneko enplegu-sorrera: 3 enplegu. <p>Itzuli beharreko aurrerakin zenbatekoa diruz lagun daitekeen inbertsioaren %35erainokoa izan daiteke, sortutako enplegu bakoitzeko 120.000 euroko gehieneko laguntzaz eta 1,5 milioi euroko muga gainditu gabe.</p> <ul style="list-style-type: none"> • “Oinarri teknologikoko” enpresa txiki eta ertainak: %35eko aurrerakinak lehenengoentzat eta %30ekoak bigarrenentzat. • Soilik “berritzaileak” diren enpresa txiki eta ertainak: %30eko aurrerakinak lehenengoentzat eta %25ekoak bigarrenentzat. • Aurrerakinak itzultzea: bost urtean, inbertsio-proiektuaren amaieratik urtebeteko gabealdia igaro ondoren, eta urtez urte zenbateko berbera ordainduz.
Eskabideak	SPRI, S.A.n aurkeztu eta sozietate honen webean lor daitekeen informatika aplikazio baten bidez beteko dira (www.spri.net).

► Eusko Jaurlaritzaren Gauzatu-Turismo programa (aktibo finkoen finantzaketa)

Onuradunak	Enpresa txiki eta ertainak eta banako enpresariak. Ezin dira onuradun izan Erakunde Administrazioko Erakundeak.
Laguntza modalitatea	Euskal Autonomia Erkidegoan turismo sektorean egin beharreko inbertsioekiko proportzionalak diren itzuli beharreko aurrerakinak. Proiektuaren bideragarritasun edota finantzaketa Plana xede duten itzuli beharreko aurrerakinak.
Laguntzaren xedea	Esparru hauetako inbertsio-proiektuak finantzatzea: <ul style="list-style-type: none"> • Leku jakinetan kokatutako edo ekipamendu espezifikoak duten hotelak: eraikuntza, erosketa, eraikinak handitu edo birgaitzea. • Landetxeak: eraikin baten eraikuntza edo birgaitzea. • Turismo apartamentuak: eraikina eraikitzea. • Kanpina: eraikuntza. • Hotel eta landetxeen egitura edo ekipamenduak modernizatzea, IKTak eta energia-eraginkotasuna hobetzeko neurriak txertatuz. • Turismo alorreko enpresak edota produktuak sortu edo handitzea, natura, aisialdia eta osasun bezalako esparruetan turismorako jarduera erakargarriak egiten dituzten sektoreetan.
Laguntzaren ezaugarriak	<ul style="list-style-type: none"> • Inbertsioak KPOko epigrafe hauetan azalduko dira: <ul style="list-style-type: none"> • 206 Aplikazio informatikoak. • 211 Eraikuntzak (urbanizazioa eta lur-mugimenduak barne). • 212 Instalazio teknikoak. • 213 Makineria. • 214 Tresneria. • 215 Bestelako instalazioak. • 216 Altzariak. • 217 Informazioa prozesatzeko ekipoak. • 218 Garraio-elementuak (kasu jakin batzuetan). • 219 Ibilgetutako beste material batzuk • Gauzatzeko aldia: 24 hilabete. • Gutxieneko inbertsioa: 30.000 euro. • Itzuli beharreko aurrerakinaren zenbatekoa diruz lagun daitekeen inbertsioaren %30ekoa izango da, 900.000 euroko muga gainditu gabe. • Bideragarritasuna Planaren %100eko aurrerakin itzulgarria, 6.000 euroraino. • Aurrerakinak itzultzea: bost urtean, inbertsio-proiektuaren amaieratik urtebeteko gabealdia igaro ondoren, eta urtez urte zenbateko berbera ordainduz.
Eskabideak	SPRI, S.A.n aurkeztu eta sozietate honen webean lor daitekeen informatika aplikazio baten bidez beteko dira (www.spri.net).

▶ Eusko Jaurlaritzaren Gauzatu-kanpoko ezarpenak programa (kanpoan egindako inbertsioen finantzaketa)

Onuradunak	<p>Industria, erauzketa, eraldaketa eta hauei lotutako zerbitzu teknikoetako enpresa txiki eta ertainak.</p> <p>Ezin dira onuradun izan Erakunde Administrazioa eta Zientzia eta Teknologiaren Euskal Sareko Teknologia Ikerketarako erakundeak.</p>
Finantzaketa era	Inbertsiorako aurrerakin itzulgarriak.
Finantzaketaren xedea	<ul style="list-style-type: none"> • Produkzio-planta berri bat irekitzea edo atzerriko sozietateak erostea, betiere euskal enpresak proiektu horietan duten partaidetza gehiengoduna bada, inbertsioaren helburu den herrialdeko lege-aginduz ezinezkoa denean izan ezik. • Ezin dute laguntzarik jaso higiezin, finantza, aseguru eta defentsari dagozkien sektoreetara zuzendutako inbertsioek. • Proiektu bakarra lagunduko da enpresa eta herrialde bakoitzeko. • Ez dira finantzatuko herrialde hauetan gauzatutako proiektuak: Alemania, Austria, Belgika, Danimarka, Finlandia, Frantzia, Grezia, Holanda, Irlanda, Italia, Luxemburgo, Britainia Handia eta Portugal. • Produkzio-planta berrietan, KPOan ezarritako kategoria hauetako aktibo berriak zenbatuko dira soilik: <ul style="list-style-type: none"> • 203 Jabetza industrialak. 206 Informatika-aplikazioak. 210 Lurrak eta ondasun naturalak. 211 Eraikuntzak (berriak zein erabilitakoak). 212 Instalazio teknikoak. 213 Makineria. 214 Tresneria. 215 Beste instalazio batzuk. 217 Informazio-prozesuetarako ekipoak. <p>“Lur eta ondasun naturaletan” eta “eraikuntzetan” egindako inbertsioaren gehieneko kopurua laguntza jaso dezaketen gainerako aktibo baturaren berdina izango da.</p>
Eragiketen ezaugarriak	<p>Egungo enpresa baten erosketan, ondoko balioetatik txikiena hartuko da laguntza jaso dezakeen inbertsiozat</p> <ul style="list-style-type: none"> • Arestian zerrendatutako aktibo finkoen balio garbia. • Edo erosketan itundu eta ordaindutako benetako prezioa. <p>Aurreko kontabilitate-kategorietako inbertsioa gutxienez 120.000 eurokoa izan eta 36 hilabeteko epean gauzatu behar da. Gutxieneko inbertsioa kalkulatzeko, enpresak proiektuan duen partaidetzaren proportzioa zenbatuko da.</p> <p>Aurrerakin itzulgarriaren zenbatekoa laguntza jaso dezakeen inbertsioaren %30erainokoa izan daiteke, 600.000 euroko gehieneko kopurua gainditu gabe:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Laguntza jaso dezakeen inbertsioaren %30eko aurrerakin itzulgarriak enpresa txikientzat. • Laguntza jaso dezakeen inbertsioaren %25eko aurrerakin itzulgarriak enpresa ertainentzat. • Aurrerakinak itzultzea: bost urtean, inbertsio-proiektuaren amaieratik urtebeteko gabealdia igaro ondoren, eta urtez urte zenbateko berbera
Eskabideak	SPRI, S.A.n aurkeztu eta sozietate honen webean lor daitekeen informatika aplikazio baten bidez beteko dira (www.spri.net).

► AFI programa (Spri S.A.-ren laguntza finantza-kostuak murrizteko)

Onuradunak	Euskal Autonomia Erkidegoan finkatutako enpresa txiki eta ertainak eta banako enpresariak, industria, merkataritza eta turismoa sektoreetan dihardutenak. Ez dira onuradun izango sozietate publikoak.
Laguntza modalitatea	Aktibo finko berrietan egindako inbertsioak finantzatzea xede duten mailegu eta leasing eragiketen gaineko interes tasen hobaria. Ez dira gogoan hartuko eraikuntzak, erabilgarriak diren heinean. Kanpoan utzi dira Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila; Garraio eta Herri Lan Saila eta Nekazaritza eta Arrantza Sailaren eskumen eremuetako proiektuak.
Laguntzaren xedea	Kategoria hauei dagozkien aktibo finkoak finantzatzeko laguntza, KPOean ezarritako definizioaren arabera: <ul style="list-style-type: none"> • 206 Informatika aplikazioak. • 210 Lurrak eta ondasun naturalak (turismo arlokoak izan ezik). • 211 Eraikuntzak. • 212 Instalazio teknikoak. • 213 Makineria. • 214 Tresneria. • 215 Beste instalazio batzuk. • 216 Altzariak (merkataritza eta turismo arlokoak bakarrik). • 217 Informazio prozesuetarako ekipoak. • 218 Garraio elementuak (turismo arlokoak bakarrik). • 219 Bestelako ibilgetu materiala.
Laguntzaren ezaugarriak	<ul style="list-style-type: none"> • Diruz lagundutako finantza-eragiketaren gehieneko zenbatekoa: diruz lagun daitekeen inbertsioaren %100 edota finantza erakundeekin finantza-eragiketen interes tasei eta aplikatu beharreko epeei buruz berriaz sinatuko diren hitzarmenen itzalpean formalizatutako polizen zenbatekoa (bien arteko txikiena). • Inbertsioaren gutxieneko zenbatekoak: 100.000 euro industria sektorean eta 30.000 euro merkataritza eta turismo sektoreetan. • Interes tasen hobaria: <ul style="list-style-type: none"> • 1,5 puntu oro har. • 0,25 puntu gehigarri EBSren batek abalaturako eragiketarako.
Eskabideak	SPRI, S.A.rekin Hitzarmena izenpetua duten Kreditu Erakundeak. www.spri.net

► Eusko Jaurlaritzaren Adefin programa (finantza-egitura moldatzeko laguntza)

Onuradunak	<p>Euskal Autonomia Erkidegoan kokaturiko enpresa txiki eta ertainak, produktu-prozesuarekin zerikusia duten erauzketa, eraldaketa, produkzioa eta zerbitzu teknikoen alorreko —edo horiexei lotutako— industria-jarduerak garatzen dituztenak, bai eta komunikazioen eta informazioaren gizartearen esparrukoak ere.</p> <p>Merkataritza-jarduerak egiten baditu, hauek negozio-bolumenaren %50etik beherakoak izango dira.</p>
Laguntza modalitatea	<p>Finantza-egitura egokitzeko proiektuen intereseko alderdietarako dirulaguntza, baldin eta egitura hori ez bada egokia enpresaren geroko bilakaerarako, eta betiere, haren Maniobra-Funtsa guztizko pasiboaren %20 baino gutxiagokoa bada (eskaeraren aurreko urteari dagokionez), edo gehiagokoa izanda ere, kapital zirkulatzailaren premia egiaztatzen bada.</p>
Laguntzaren xedea	<p>Pasiboak birfinantzatzeko laguntza. Honetarako, eskaeraren urtean eta deialdiaren ekitaldiaren hurrengo bi ekitaldietan sortutako mugaegunak dituzten besteren banku-baliabideak zenbatuko dira, KPOko kontabilitate-epigrafe hauei dagozkienak:</p> <ul style="list-style-type: none"> • 170. Epe luzerako zorrak kreditu-erakundeekin (urtebetetik gorako mugaeguna) • 520. Epe laburrerako zorrak kreditu-erakundeekin (urtebetetik beherako mugaeguna). <p>Ez dira sartzen finantza errentamenduko eragiketetatik eratorritako mugaegunak.</p> <p>Merkataritza-efektuen eta kreditu-kontuen deskontuetarako, amortizatzeke dagoen zenbatekotzat joko da eskaeraren dataren aurreko 12 hilabeteetako batez besteko saldoa. Maileguetan, hura amortizatzeke kopuruen batura, eskaria egiten denetik hurrengo 2 urteetako.</p>
Laguntzaren ezaugarriak	<p>Diruz lagun daitezkeen mailegu-eragiketak:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Interes tasa: finantza-erakundeekiko Hitzarmenetan ezarritakoa. • Zenbatekoa: gutxienez 30.000 eurokoa. • Amortizatzeke epea: gutxienez 5 urtekoa, urtebeteko gehieneko galdealdiaz (kalkulatzeko 7 urte gehienez). • Interes tasetarako dirulaguntzak: <ul style="list-style-type: none"> • Puntu 1 orohar. • Beste puntu 1 enpresa txikientzat. • 0,5 puntu EBSen abal bakoitzeko. <p>Gehieneko dirulaguntza: 200.000 euro hiru urtean.</p>
Eskabideak	<p>Industria, Merkataritza eta Turismo Sailaren lurralde-bulegoetan aurkeztuko dira.</p>

► Eusko Jaurlaritzaren Bideratu programa (krisialdiak jota dauden enpresak berregitaratu eta bultzatzea)

Onuradunak	<p>Euskal Autonomia Erkidegoan finkaturiko enpresa txiki eta ertainak, baldin eta laguntza eskatzen den dataren aurreko bi ekitaldian ondorengo egoeraren batean badaude:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Batez besteko langile-kopurua 50 baino gehiagokoa izatea. • Aktiboko partiden guztizkoa 1,8 milioi euro baino gehiagokoa izatea. • Urteko zenbateko garbia 3,6 milioi euro baino gehiagokoa izatea. <p>Ezin izango dira onuradun izan enpresa berriak, taldeetako kide direnak –salbuespenak salbu– eta Europar Batasuneko Itunaren 1. Eranskinean zehaztutako produktuekin zerikusia duten jarduerak, CECA Ituneko sektoreak eta Europar Batasuneko arau bereziak dituzten sektoreak.</p>
Modalitatea	Itzuli beharreko aurrerakinak
Laguntzaren xedea	<p>Berregituratze planetan zehaztutako neurriak aplikatuz sortutako kostuak finantzatzea, baldin eta plan horiek, krisialdiak jo eta kanpoko esku-hartzea behar duten enpresek landutakoak badira, epe labur edo ertainera begira desagertzeko arriskua saihesteko asmoz.</p> <p>Kasu hauetan ulertuko da enpresa ertain edo txiki bat krisialdiak jota dagoela:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Erantzukizun mugatuko sozietatea izanda, izenpetutako kapitalaren erdia baino gehiago galdu denean eta azken hamabi hilabeteetan kapital horren laurdena galdu denean. • Edo mugagabeko erantzukizuneko sozietatea izanda, bere funts propioen erdia baino gehiago galdu denean eta azken hamabi hilabeteetan funtsa horren laurdena galdu denean. • Edota porrot edo kaudimen ezeko prozeduretan hasteko ezaugarriak ditu.
Laguntzaren ezaugarriak	<ul style="list-style-type: none"> • Planean sartutako berregituratze neurrien kostu osoaren %33, gehienez ere 1.682.833,89 euroraino, betiere dirulaguntzen onuradunak neurri horien finantzaketan bere baliabideekin eta proportzio berean laguntzen badu. • Beste erakunde edo administrazio publikoek helburu berarekin ematen dituzten beste laguntzekin bateragarriak. • Laguntzak behin baino ez dira emango, eta ez da laguntza berririk emango harik eta azken berregituratzetik hamar urte igaro arte. • Onuradunari aktiboen salmenta edota gaitasunaren edo merkatuko presentziaren murrizpena bezalako kontrapartidak eska dakizkioke lehiakortasuna faltsutzea ekiditearren. • Aurrerakinak bost urtean itzuliko dira, berregituratze-planaren amaieratik urtebeteko gabealdia igaro ondoren, eta urtez urte osagai finkoa eta aldakorra biltzen dituzten zenbatekoak ordainduz.
Eskabideak	Industria, Merkataritza eta Turismo Saileko Industria-Antolamendu Zuzendaritzara bidali behar dira.

► Autonomoentzako finantza-egokitzapen programa (Spri, S.A.-ren laguntza, finantza-eragiketak berritzeko)

Onuradunak	Euskal Autonomia Erkidegoan ekonomia edo lanbide-jarduerak garatzen dituzten pertsona fisikoak, baldin eta bere konturako langileen Gizarte Segurantzaren araubide berezian edo, hala badagokio, kasuan kasuko lanbide elkargoren mutualitatean alta emanda egon eta PFEZen menpe garatutako ekonomia eta lanbide-jardueretatik etekinak eskuratzen badituzte.
Laguntza modalitatea	Azterketa eta tramitazioari dagozkion gastuei eta eskatzailearen ekonomia-jarduerari lotutako banku-maileguen epeetan gerta daitezkeen berritze-eragiketen (amortizazio-epeak handitzea) instrumentazio-gastuei aurre egiteko dirulaguntza.
Laguntzaren xedea	Maileguak berritzeko eragiketak, baldintza hauen arabera: <ul style="list-style-type: none"> • Berritu aurretik, maileguei bukaera emateko epea urtebete eta 6 urte artekoa izatea. • Berritzen den eragiketa bakoitzean, saldo bizia 10.000 eurotik beherakoa ez izatea, berritzea aplikatzen den momentuan. • Amortizazio-epe berria ez da izango berritzen den jatorrizko mailegua mugaeguneratzeko geratzen zen denbora baino bi aldiz luzeagoa, ezta 7 urtetik gorakoa ere. Berme, interes-tasa nahiz gainerako baldintzei dagokienez, finantza-erakundeak jatorrizko polizan ezarri
Laguntzaren Ezaugarriak	Gehienez 2.000 euroko kopurua eragiketa bakoitzeko: <ul style="list-style-type: none"> • Azterketa eta tramitazioagatik 75 euro eragiketa bakoitzeko, eta berritzea gauzatzeko komisioagatik %0,25 eta %0,5 tarteko ehunekoa berritu beharreko saldo biziaren gainean, saldo hau amortizatzeko epe berriaren arabera eta 1.000 euroko gehieneko zenbatekoaz bi kontzeptuetarako. • Eragiketaren instrumentazio-gastuengatik, %0,5eko portzentajea berritu beharreko saldo biziaren gainean egindako eragiketa bakoitzeko.
Eskabideak	SPRI, S.A.rekin Hitzarmena izenpetua duten Kreditu Erakundeak www.spri.net

► **Euskal Herriko arrisku-kapitalaren kudeaketa AKEKS, S.A.**
(aldi baterako partaidetzak kapitalean)

Onuradunak	Industria alorreko edo honi lotutako zerbitzuetako enpresak.
Finantzaketa era	Aldi baterako partaidetzak kapitalean.
Finantzaketaren xedea	Partaidetzako sozietatearen funtsak sendotzen laguntzea. Arrisku-kapiteko lau funtsen bitartez arreta egiten zaie enpresa-garapenaren fase desberdinei: <ul style="list-style-type: none">• Enpresetan inbertitzea hasierako fasean.• Kontsolidatuta edo garatze prozesuan dauden enpresetan inbertitzea.• Goi teknologiako enpresetan inbertitzea.• Oinarri zientifiko edota berritzailea duten Inversiones en empresas de base científica y/o innovadora enpresetan inbertitzea.
Eragiketen ezaugarriak	<ul style="list-style-type: none">• Kapitalean parte hartzeko gutxieneko kopurua 150.000 eurokoa, eta gehienekoa 3 milioi eurokoa.• Partaidetzak aldi baterakoak dira (6/7 urte) eta gutxiengodunak.
Eskabideak	Euskal Herriko Arrisku-Kapitalaren Kudeaketa, AKEKS, S.A. Telefonoa: 94 479 01 92.